

GAZTEDIA ▶

Gazteguneari izena eta logotipoa jartzeko lehiaketa martxan da

Beasaingo gazteak eta gaztegunea izango da gaia eta apirilaren 29an, 21:00ak baino lehen aurkeztu behar dira



Gazteen topaleku izan nahi du gazteguneari. AIMAR MAIZ

UXUA BARANDIARAN

Duela hilabete pasatxo ireki zuten ateak herriko gazteguneari eta oraingoan lehiaketa jarri du martxan Udalak gazteguneari izena eta logotipoa aukeratzeko. 12 eta 18 urte arteko gazteek hartu dezakete parte eta Beasaingo gazteak eta gaztegunea gaia landuz, izen euskinduna izatea beharrezkoa

dela adierazi dute antolatzaileek. Lanak apirilaren 29an iluntzeko bederatzia baino lehen aurkeztu behar dira, Urbieta etxean dagoen gazteguneari.

Edozein kolore eta eratako lanak onartuko dira lehiaketa honetan: collagea, pintura, ordenagailuz egindako diseinuak... Dena dela, A4 tamainan aurkeztu behar dira guztiak. Lanak gainera, inoiz argitaratu

gabeak izatea ezinbestekoa da.

Lan bakoitza egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik gabe aurkeztuko da kartazal itxi batean. Honekin batera, beste gutun batean parte hartzailearen datu pertsonalak eta nortasun agiriaren fotokopia aurkeztu behar dira.

Lehiaketa irabazten duenak proposatutako izena eta logotipoa jarriko zaizkio gazteguneari baina, honetaz gain, saridunak 120 euro eramango ditu etxera. Antolakuntzatik azaldu dutenez, maiatzaren 6a baino lehen emango da ezagutzera irabazlea.

Lanak erakusketan ikusgai

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak erakusketan batean bildu eta ikusgai jarriko dira gazteguneari maiatzaren 6tik 21era.

Beasaingo Udaletik jakitera eman dutenez, ekainaren 10etik 25era bitartean jaso ahal izango dira lanak gazteguneari irekita dagoen ordutegian. Larunbat eta igandetan beraz, arratsaldeko bostetatik gaueko bederatzietara bitartean.

SASKIBALOIA ▶

Bigarren porrota jaso dute jarraian BKL-CAFeko senior mutilek asteburuan

Beste saskibaloit taldeek jokaturako partida gehienak irabazi dituzte

U. BARANDIARAN

BKL-CAF saskibaloit taldeko senior mutilek ez dute garaipenik lortu asteburu honetan ere. Azpeitiarren kontrako partidaren 59 eta 51 galdu zuten eta ondorioz, bigarren porrota jaso dute jarraian.

Baloia lasai mugitzeko aukera izan zuten azpeitiarrek eta defentsa sendoa ezarri zuten. Horrela, BKLko mutilek distantzia erdi eta luzetik egin behar

izan zituzten jaurtiketa gehienak. Markagailuko aldean, ordea, ez zen 6 puntu baino gehiagokoa izan partidaren zehar. Azken minutuetan alde txikitu egin zen baina talde azpeitiarrek lasaitasuna mantendu eta garaipena lortu zuten.

Gainontzeko taldeei dagozkionez, junior mutilek 78-44 galdu zuten ordiziarren kontra baina beste taldeek irabazi egin zituzten jokaturako partidak.

Junior neskek Aloña Mendi izan zuten aurkari eta, 33-38 irabazi zuten BKLk.

Kadete mailan, mutilek 12-45 irabazi zuten Bergarako taldearen kontra. Neskek berriz, 35 eta 19 lortu zuten garaipena Andraitzen aurkako norgehiagokan.

Infantil mailako neskek etxean jokatu zuten Laskorainen kontra eta 66-23ko emaitzarekin garaipen argia lortu zuten beasaindarrek.

HITZALDIA ▶

Ondasun banaketa hizpide Asmubean

Beasaingo emakume elkartearen Asmubek aurrera jarraitzen du hilabete honetarako hitzaldiekin. Aurreko aldietan bezalaxe gaur ere arratsaldeko bostetan izango da hitzaldia elkartearen egoitzan. Senar-emazteen ekonomia erregimena eta, ondasun banaketa izango dira hizpide hitzaldi honetan. Gertu abokatuen enpresako kide batek eskainiko du. Datorren asteazkenean, martxoak 29 bukatuko da hitzaldi zikloa eta orduan, zergak eta errenta aitortpenaren inguruan hitz egingo da. Asmube emakume elkartearen kideek hitzaldiak entzuterako joateko deia egin diete herritar nahiz goerriarrei.

INGURUMENA ▶

Oiangu publikoa eta bizirik-en saioa gaztetxean

Oiangu publikoa eta bizirik-en plataformak hitzaldia eskainiko du gaur Beasaingo gaztetxean. Arratsaldeko zazpitan hasiko da eta Oiangu egin nahi duten proiektuaz mintzatuko da, besteak beste Jone Etxeberria plataformako ordezkaria. Gaztetxeko kideek mota honetako hitzaldiak antolatzeak daukan garrantzia azpimarratu dute. «Informazio zuzena jasotzeko aukera eskaintzen du».

HEZKUNTZA ▶

Eskola inklusiboa oinarri hartuta hitzaldia gaur

Eskola inklusiboaren inguruan hitzaldia antolatuko da gaurko, 18:30ean hasita, Murrumendi ikastetxeak. «Eskola inklusiboak guztientzako eskola esan nahi du, guztiei toki egin behar die». Ramon Flecha Bartzelonako unibertsitateko Soziologia Teoria-irakaslea izango da hizlaria. Azken urteetan, familia eta eskolaren arteko elkarlana nola bultzatu lantzen arituko da.

LITERATURA ▶



Adi-adi entzun zituzten gazteboek Lur Kortaren ipuinak. U. BARANDIARAN

Lur korta kontu-kontari liburutegian

Haurrei zuzendutako literaturak garrantzia berezia izan zuen atzo arratsaldean Beasaingo liburutegian. Gaztetxoentzat egokitutako gela berezian, Lur Kortak ipuin ibiltariak kontatu zizkien bertan bildu ziren gazteboei. Entzuleen artean giro epela sortzeko-edo solasean aritu zen lehenbiziko eta ondoren, ipuinak kontatzeari ekin zion. Untxi baten komeriak izan zituen hizpide lehengo kotakizunean. Leku arazoak ekiditeko gonbidapenak aurretik banatu ziren eta saioaz gozatu nahi zuten haurrak txintxo asko egon ziren azalpenak entzuten.